

Gida Akademikoa

LEINN. Lidergo ekintzaile
eta berrikuntzan gradua

2024-2025



≡ Aurkibidea

1. NORTZUK GARA

Mondragon Unibertsitatea (MU)

Mondragon Team Academy (MTA): Pentsamendu estrategikoak eta MTA World

2. IKASTEKO EREDUA: MTA FALKON MODEL

Ikasketa plana

Konpetentzia profila

3. IKASTEKO EREDUA: MTA FALKON MODEL

Falkon Model

Team learning journeys

Tech skills

Inpaktua sortzen duten enpresak garatzeko programak

Gradu amaierako proiektua

4. EBALUAZIO SISTEMA

5. ARAUTEGI AKADEMIKOA ETA ADMINISTRATIBOA

6. EGUTEGI AKADEMIKOA

Mondragon Unibertsitatea

MONDRAGON UNIBERTSITATEA, bere garaiarekin eta bere gizartearekin konprometitutako unibertsitatea da. Mundura irekia dago eta etorkizunera proiektatua. Unibertsitate gazte eta dinamiko kooperatiboa gara. Mondragon Unibertsitatea, bere jatorritik bertatik nabarmendu da, enpresa munduarekin izan duen harreman estuagatik.

Enpresa Zientzien Fakultatetik, Oñati, Irun, Bilbo, Madril, Malaga, Bartzelona, Balentzia, Queretaro, Puebla, Seoul, Seattle, Pune eta Shanghaiko laborategiekin, hau proposatzen dizugu: Enpresa Kudeaketa, Ekintzailletza eta Berrikuntzari buruzko prestakuntza, eguneratua eta Europako Esparrura egokitua.



MU
MU
MU
MU

Mondragon Team Academy



2008ko maiatzean, enpresa fakultateko barne ekintzaile talde batek (MU Enpresagintza), Mondragon Team Academy sortu zuen, Mondragon Unibertsitateko ekintzailetza unitate gisa.


Mondragon Team Academy-ren helburua da, Mondragonen esperientzia kooperatiboaren hastapenetako komunitate ekintzailearen izpiritua eta sortzeko gaitasuna berpiztea. Horretarako, komunitate ireki eta global bat sortu nahi dute, talde ekintzaile kooperatibo, diziplina anitzeko, belaunaldi eta kultura anitzeko taldeez osatua.

LEINN sortu zen lehen unetik, hainbat bazkidek interesa agertu zuten nazioartean kolaboratzeko, LEINN garatzeko eta tokiko komunitateetan eta hirietan MTako laborategiak sortzeko. Horri esker, gero eta gazte gehiagok, prestakuntza jaso ahal izan dute ekintzailetzaren iraultzaren bidez MTako kooperatiba taldeetan, ekintzaile talde bihurtuz (teampreneurs) eta, horrela, tokiko errealitatea eraldatuz.

MTA World



Pentsamendu estrategikoak



Misioa

We are **conscious, unified** and **diverse** community, co-creating and experimenting, aiming for glocal transformation.

Bisioa

By 2030 we will be more **radical**, more **diverse**, more **acesible** and more **transformative** teams, responding to the upcoming challenges with a more connected and aligned global community of teampreneurs, while embracing uncertainty.

Baloreak

- We pursue conscience of both the positive and negative impact that we generate
- We want inclusive & active diversity for collective intelligence
- We are in continuous improvement through self questioning & open dialogue
- Leave it better than you found it
- We look for fun through a radical process
- We take care of ourselves, to take care of the planet

LEINN graduaren aurkezpena

Lidergo ekintzailean eta berrikuntzan gradua, (LEINN), MTAn sortutako lehen programa izan zen. Ofizialki, 2009ko uztailean onartua izan zen, Ekintzailetza eta Berrikuntzako Europako lehen Gradu Ofiziala bihurtuz.

LEINN programa sortu zen, unibertsitate-hezkuntzatik erantzuteko, enpresak sortzeko eta talde ekintzaileak garatzeko zegoen beharrari, Europako eta munduko lehiakortasunaren esparruan. LEINNeko hezkuntza ereduak, honako hauek hartzen ditu abiapuntutzat: Finlandiako hezkuntza ereduak, (Tiimiakatemia Finland), Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza esperientzia, eta MONDRAGON taldearen enpresa esperientzia. Proiektu honen eredu kontzeptuala Peter Senge-ren "Ikasten duten erakundeak" kontzeptuan oinarritzen da, "Bosgarren diziplina" liburuan deskribatzen dena.

MTA FALKON eredu berriak, aurreko hezkuntza ereduaren onura guztiak biltzen ditu (Rocket Model eredu finlandiarrean oinarritua), eta tresna eta prozesu berriak sartzen ditu, ekintzailearen, bere taldearen eta enpresaren hezkuntza esperientzia hobetzeko asmoz.



Ikasketa plana

1393/2007 Errege Dekretuaren arabera, 240 kreditu ezarri dira guztira, lau urteko titulaziorako; hau da, 60 kreditu, ikasturte bakoitzean. Kreditu bakoitzeko ordu kopurua, 25 ekoa da.

Lanaldi osoan dagoen ekintzailearen dedikazioa, 38 astekoa izango da, ikasturte akademiko bakoitzeko.

1º IKASTURTEA

1.1 Materia Enpresaren sorrera eta antolaketa I	6	OP
1.3 Materia Finantzak ekintzaileentzat I	6	OP
1.5 Materia Teknologia suspergarriak I	6	OP
2.1 Materia Enpresaren sorrera eta garapena: Tresnak Finantza, lege eta digital kudeaketarako tresnak I	12	OP
3.1 Materia Lidergoa, ikaskuntza auto-kudeatua eta garapen pertsonala I	10	D
2.3 Materia Bezeroen kudeaketa, marketina eta salmentak I	5	D
4.1 Materia Talde eta komunitateen sorrera eta garapena I	10	D
5.1 Materia Nazioarteko egonaldiak, (Learning Journeys) berrikuntza eta ekintzaileentzako ekosistematan I	5	D

2º IKASTURTEA

1.1 Materia Enpresaren sorrera eta antolaketa I	6	OP
1.4 Materia Finantzak ekintzaileentzat II	6	OP
1.6 Materia Teknologia suspergarriak II	6	OP
2.2 Materia Enpresaren sorrera eta garapena: Tresnak Finantza, lege eta digital kudeaketarako tresnak II	12	OP
2.4 Materia Bezeroen kudeaketa, marketina eta salmentak II	5	D
3.2 Materia Lidergoa, ikaskuntza auto-kudeatua eta garapen pertsonala II	5	D
4.2 Materia Talde eta komunitateen sorrera eta garapena II	5	D
5.2 Materia Nazioarteko egonaldiak, (Learning Journeys) berrikuntza eta ekintzaileentzako ekosistematan	5	D
6.1 Materia Diseinu pentsamendua eta negozio ereduen sorrera I	5	D
6.3 Materia Estrategia eta berrikuntza irekia I	5	D

3º IKASTURTEA


1.1 Materia Enpresaren sorrera eta antolaketa I	5	D
4.3 Materia Talde eta komunitateen sorrera III	5	D
5.3 Materia Nazioarteko egonaldiak (Learning Journeys) Ekosistematan III	15	OP
6.2 Materia Diseinu pentsamendua eta negozio ereduen sorrera II	5	OP
6.4 Materia Estrategia eta berrikuntza irekia II	5	D
8.1 Materia Teknologia esponentzialak eta bere aplikazioa negozio eta industrietan	15	D
Hautazkoa: 7.1.1 Materia Inpaktuko Startup Programa	5	D
Hautazkoa: 5.4.1 Materia Ingelesa	5	OP
Hautazkoa: 5.4.2 Materia Txinera	5	OP
Hautazkoa: 5.4.3 Materia Hirugarren hizkuntza	5	OP

4º IKASTURTEA

Materia 7.2 Inkubazioa eta barne-ekintzaileentzako: Sarbidea, inbertsio eta finantzaziora	20	D
Materia 8.3 Gradu bukaerako lana	30	GBL
Materia 8.2 Teknologia esponentzialak eta bere aplikazioa negozio eta industrietan: adimen artifiziala, Blockchain eta Fabrikazio digitala II	10	D

Konpetentzia profila

21 konpetentzia daude, hiru kategoriatan banatuta (MU-ko zeharkako konpetentziak, LEINNe oro korrak eta LEINNeo espezifikoak). Hauek, bereziki definitu dira LEINN FALKON Era-rako. Horrela, LEINNeo ikaskuntza jarduerak eta prozesuak, graduaren konpetentziekin lerrokatu daitezke. Hau dela eta, "Performance/jarduera ekintzaile-akademikoko" agintetala integratu bat dago.



Zeharkako konpetentziak / MU


- Kooperatiboa
- Sortzailea eta eraldatzailea
- Kritiko eta analitikoa
- Ikaslea bizitza osoan zehar
- Ikuspegi globala
- Erresilientea
- Kontzienteak eta konprometituak

LEINNeo konpetentzia oro korrak / Pertsonalak

- Sortzailea
- Irekiak eta inizatibarekin
- Ausartak eta saiatuak
- Kontzienteak eta etorkizunera bideratuak
- Talde jokalaria
- Zintzoak eta gardenak
- Grinatsuak


LEINNeo konpetentzia espezifikoak / Profesionalak

- Ikuspegi globala
- Berritzaileak
- Lider ekintzaileak
- Digitalak
- Bisioa dutenak
- Emaitzetara bideratuta
- Konektatuak



Ikasteko eredua: MTA FALKON MODEL

Falkon Model



Lidergo ekintzailean eta berrikuntzan gradua, (LEINN), MTAn sortutako lehen programa izan zen. Ofizialki, 2009ko uztailan onartua izan zen, Ekintzailetza eta Berrikuntzako Europakolehen gradua bihurtuz.

LEINN programa sortu zen, unibertsitate-hezkuntzatik erantzuteko, enpresak sortzeko eta talde ekintzaileak garatzeko zegoen beharrari, Europako eta munduko lehiakortasunaren esparruan. LEINNeke hezkuntza ereduak, honako hauek hartzen ditu abiapuntutzat: Finlandiako hezkuntza ereduak, (Tiimiakatemia Finland), Mondragon Unibertsitatearen hezkuntza esperientzia, eta MONDRAGON taldearen enpresa esperientzia. Proiektu honen eredu kontzeptuala Peter Senge-ren "Ikasten duten erakundeak" kontzeptuan oinarritzen da, "Bosgarren diziplina" liburuan deskribatzen dena.

MTA FALKON eredu berriak, aurreko hezkuntza ereduaren onura guztiak biltzen ditu (Rocket Model eredu finlandiarrean oinarritua), eta tresna eta prozesu berriak sartzen ditu, ekintzailearen, bere taldearen eta enpresaren hezkuntza esperientzia hobetzeko asmoz.

Hiru "unibertso" daude MTA FALKON ereduaren, hiru esparru globalei dagozkienak, taldeko ekintzaile gisa eraldatzeko eta gaitzeko prozesuan (teampreneur). Hona hemen:

>> "M" Unibertsoa

"Cultivating Changemaker teams" (Aldaketaren eragile bihurtzea, lan taldean).

>> "T" Unibertsoa


Impact Startup Development" (Inpaktuko enpresaren garapena).

>> "A" Unibertsoa

"Technical Knowledge & Tools" (Ezagutza teorikoa eta tresnak)
Iru ikasketa eredu hauek, M ereduaren berezkoak dira.




M unibertsoa: Cultivating Changemaker Teams




Unibertso honetan, hainbat proiektu errealeen garapenaren bidez, LEINN gradua egiten duen pertsonaren nortasunak bilakaera bat izango du, "Lantaldean, aldaketaren eragile" bihurtuz (teampreneur). Unibertso honetan, funtsezko bi ikaskuntza prozesu sartzen dira: "Enpatia eta aniztasuna", (Empathy and Diversity) taldearen motorrean, eta "zaintza pertsonala eta garapena" (personal Cultivation & Wellbeing) banakako motorrean.

T unibertsoa: Impact Startup Development



Unibertso honek, enpresa sortzeko eta garatzeko ikaskuntza prozesu guztiak biltzen ditu. Prozesu horietan, elkarrekin bizi dira, “Team learning by creating” (taldean sortzen ikastea) esperientzia erreal, eta startup arrakastatsuak sortzea ziurtatuko duten ezagutza teoriko nahiz tresna teknikoak; (hauen sorrera eta lehenengo urratsetatik hasita, heldutasuna, inbertsore eta bazkide estrategikoen kudeaketa lortu arte).

A unibertsoa: Technical Knowledge & Tools



Unibertso honen ikaskuntza prozesuek, aukera ematen diote ekintzaileari, ezagutza teknikoa eta tresnak eskuratzeko, pertsonalki eta profesionalki garatu ahal izateko, pertsona ekintzaile, talde eta enpresa gisa.

MTA FALKON ereduaren berezko hiru ikaskuntza unibertso hauek, elkarren artean osatzen eta elikatzen dira, LEINN gradua egiten duen ekintzailearen garapena eta ikaskuntza bermatuz.

Unibertso hauek zentzua ematen diete eta integratu egiten dituzte, graduaren egitura globala osatzen duten modulu eta ikasgai ezberdinak

- **1. modulua:** Enpresen sorreren eta kudeaketaren oinarriak - 36 ECTS
- **2. modulua:** Ekintzailtza eta bezeroei zuzendutako ikuspegia - 34 ECTS
- **3. modulua:** Lidergoa, ikasketa autokudeatua eta grapen pertsonala - 20 ECTS
- **4. modulua:** Talde garapena eta ikaskuntza komunitateak - 20 ECTS
- **5. modulua:** Pertsona globalak - 30 ECTS
- **6. modulua:** Diseinu pentsamendua, Berrikuntza irekia eta Negozio ereduaren sorrera - 20 ECTS
- **7. modulua:** Startup-en inkubazioa eta barne-ekintzailtza: inbertsioa eta finantzazioa - 25 ECTS
- **8. modulua:** Espezializazioa eta amaierako proiektua - 55 ECTS



Team Learning Journey-ak

Graduaren osagairik bereizgarrietako bat learning journey edo ikaskuntza-bidaia gisa definitzen duguna da. Graduako lehen hiru ikasturteetan, ekintzaileak, hainbat atzerriko herritara joaten dira, mundu garaikideko herritar global bihurtzeko; hau da, desberdintasuna zein beharrak ulertzeko, aukera berriak identifikatzeko, eta irtenbide berriak proposatzeko trebetasuna garatzeko. Azken hau, enpresa proiektu gisa izango da, eta munduko edozein lekutan izan daiteke. Hori guztia, nazionalitate eta testuinguru ekonomiko desberdinetako pertsonen osatutako taldeetan lan eginez.

Ikaskuntza-bidaiak, Europara, AEBetara eta BRICM eremuko bi herrialdetara (Brasil, Errusia, India, Txina, Korea eta Mexiko) egiten dira. Egonaldia horietako bakoitzean, iraupen espezifikoak dauka, eta ikaskuntzen eta ezagutzaren katalizatzaile berezia da.



Team Learning Journeys



1. urte

MTAn murgiltzea / 1 aste **Europa / 4 aste**

- MTA metodologia eta baloreetan sakontzea
- Mundu mailan berrikuntza-maila handia duen ekintzaitzaren erreferentziazko ingurunea



2. urtea

EEUU / 4 aste

- Lehenengo nazioarteko esperientzia lantaldean
- Lehenengo proiektu globalak



3. urtea

BRICM / 14 aste

- Esperientzia, suspertzen ari diren herrialdeetan
- Garapen pertsonala beste kultura batzuetan

Tech Skills



Falkon “enpresak sortzeko eta kudeatzeko oinarriak” moduluan, funtsezko hiru kompetentzia tekniko lantzen dira, Leinner-en gaitasun teknikoa lortzeko, eta baita enpresaren enpresa-oinarrietarako ere: “Legal Tech Skills”, “Financial Tech Skills” eta “digital & Exponential Technologies Tech Skills”, LEINNeen curriculumean dimentsio teknologikoa estrategikoki txertatzeko apustu argia eginez.

Hiru tech skills hauek Enpresa motorrean integratzen dira, eta horrela, elkarrekin lan egin behar duten aholkularien eta entrenatzaileen rolen arteko koordinazio handiagoa ahalbidetzen da.

Tekh skill-en ezagutza transmisioa, plataforma eredu baten bidez ere burutzen da. Beraz, metodologiari dagokionez, bi mailatan egiten da lan:

- Ikasketa prozesua enpresan edo Team Company
- Banakako ikaskuntza-prozesu automatizatua - asinkronoa, Moodle plataforman

Tech Skills

1. modulua: Enpresaren sorreraren eta kudeaketaren oinarriak (36 ECTS)

- 1.1. Materia: Enpresaren sorrera eta antolaketa (6 ECTS) I OINARRIZKO PRESTAKUNTZA
- 1.2. Materia: Enpresaren sorrera eta antolaketa II (6 ECTS). OINARRIZKO PRESTAKUNTZA
- 1.3. Materia: Finantzak ekintzailentzat I (6 ECTS). OINARRIZKO PRESTAKUNTZA
- 1.4. Materia: Finantzak ekintzaileentzat II (6 ECTS) OINARRIZKO PRESTAKUNTZA
- 1.5. Materia: Teknologia suspergarriak I (6 ECTS). OINARRIZKO PRESTAKUNTZA
- 1.6. Materia: Teknologia suspergarriak II (6 ECTS). OINARRIZKO PRESTAKUNTZA

Espezializazioa

Falkon eredu berriak, LEINNER bakoitzean zentratutako LEINN esperientziaren kustomizazioa ahalbidetu eta sustatu egiten du, hainbat osagaien bidez. “Espezializazio” prozesu berriari esker, LEINNER bakoitzari, bere abentura/esperientzia diseinatzera animatzen zaio, ahalduntzeko aukera emanez.

Horrela, LEINNER bakoitzak, bere interesekoak diren gaitasun teknikoak eskura ditzake. Moduluaren akreditazioa, irekia eta eguneragarria da, ezagutza teknikoen plataforma digital nagusiak pixkanaka integratu ahal izateko (EDX, Coursera, Google unibertsitate-plataforma berria, IronHack...). Honi esker, laborategiek, LEINN graduko nortasun partikularretan sakonduko dute, espezializazio-ibilbideen arabera.

Era berean, pertsona ekintzaileak eta taldeek, espezializatzeko aukera eta beharra dute, teknologia esponentzialetan (Blockchain, Inteligentzia artifiziala, IoT, fabrikazio digitala eta 4.0 industriak...) eta sektore eta industria espezifikotan (Finntech, sormen-industriak, e-mobility...), beren jarduera ekintzailearen eta barne-ekintzailearen barruan.



Inpaktua sortzen duten enpresak garatzeko programak




2° / The Future Game

Kontzeptu berritzaileen portfolio bat izatea. Sakontzeko prozesua: inspiratzea, arazoekin konektatzea...

Programa:

1. Erronka globalak ezagutzea
2. Inspirazioa, joerak
3. Ikerketa
4. Ideiazioa
5. Kontzeptualizazioa
6. Azken demoa bezeroekin



3° / Bootcamp-a teknologia exponentzialetan

"Trantsizioko mundu baterako teknologiak" programaren helburua proiektuetan bektore teknologiko bat sartzea da, eragin positiboa zabaltzeko eta mundu errealean ekiteko

Programa:

1. Zeharkako bektore edo ardatzen azterketa
2. Azterketa-kasuak
3. Teknologia aplikatuak
4. Plan teknologikoa
5. Ikasketa-plana eta pertsonak
6. MVP baten ekintza-plana eta garapena
7. Business model canvas



3° / Mentoretza Programa

Mentoretza programaren bidez, benetako eragina sortzen duen proiektu berritzaile baten negozio eredua garatuko da.

Programa

1. Negozio ideiaaren diseinua
2. Merkatua eta eskalagarritasuna
3. Negozio-planaren diseinua
4. MVP Planteamendua



4° / Inkubazio eta azelerazio Programa

Enpresa berri bat edo proiektu barne-ekintzaile bat garatzeko programa

ORIENTAZIOA: ikaste portfolioa eta erronka definizioa

BACK TO THE FOREST: taldeko eta banakako ikaste kontratua

ERRONKA: definizioa


IRTENBIDEA: Bezeroaren/merkatuaren ulermena eta balio-proposamena

PRODUKTUA: Prototipoen garapena

NEGOZIOA: Lidergoa, marketina, HR, salmentak

MERKATUA: Hazkunde plana, berrikuntzak, bideragarritasun ekonomikoa

Gradu amaierako lana



Honen helburua lan bat egitea eta aurkeztea da, titulazioan zehar landutako konpetentzia tekniko eta zeharkakoen ariketa integratzaile gisa. Bi ibilbide posible daude, proiektuaren berezko izaeraren arabera:

Enpresa proiektuaren garapena: Sortu berria

Ekintzailea, MTA-MUko laborategietako inkubagailuan eta venture builders-ean integratuko da, eta enpresak sortzeko prozesu osoa garatuko du, negozio-idea garatuzetik, prototipatura eta lehen merkataritza-testatzeraino. Unitate honetan, enpresa sortzeko prozesu osoa garatzen lagunduko dion bidelagun pertsonala, taldekoa eta enpresakoa izango ditu.

Enpresa proiektuaren garapena: Barne-ekintzailtza

Ekintzailea, abian dagoen enpresa batean integratuko da, barne-ekintzailtza proiektu baten garapenari aurre egiteko; hau da, enpresaren barruan egiten den enpresa-proiektu berri bat. Pertsona ekintzaileak, berrikuntza-proiektu estrategikoa martxan jarriko du, eta horren ondorioz, enpresa sortzeko prozesu osoa egitea suerta daiteke (spin off), ideiak sortzen dituenetik prototipoa garatu eta merkaturatzeko lehen testea egin arte.

Enpresa tokiko ingurunean edo atzerrian egon daiteke. Bi kasuetan, pertsona ekintzaileak prozesu osoa garatzen lagunduko dion bidelagun pertsonala izango du.

Ebaluazio sistema

Ikasgai guztiak, etengabeko ebaluazio sistema baten bidez monitorizatuko dira. Sistema horren bidez, informazio jarraia lortuko da, ekintzailearen, taldearen eta enpresaren ikaskuntza-prozesuari buruz.

Bai graduko entrenatzaileek, zein adituek, aholkulariek eta bidelagunek, aktiboki parte hartzen dute ebaluazio-prozesu horretan, bere koherentzia eta baliozkotasuna bermatzeko. Irakasgai bakoitzean banakako nahiz taldeko jarduna baloratuko dela kontuan hartuta, gradua ebaluatzeko sistema arautuko duten irizpideak honako hauek izango dira:

- Banakako lana, gehienez ere, amaierako notaren % 30i dagozkion ebidentziekin ebaluatu ahal izango da.
 - Talde lana, gutxienez, amaierako notaren % 70i dagozkion ebidentziekin ebaluatuko da.
- El proceso de evaluación se realizará como mínimo dos veces al año en una sesión de diálogo y se utilizarán los siguientes artefactos:

Ebaluazio prozesua urtean bitan egingo da, gutxienez, elkarrizketa-saio batean, eta honako tresna hauek erabiliko dira:

1. Taldeko ekintzailera-prozesuaren ebaluazioa ikaskuntza modulu guztietan. Hainbat adierazle betetzen diren aztertu eta balioesten da, moduluetan ezarritako ikaskuntza-emaizetan oinarrituta.
2. Konpetentzien profilaren eta banakako jardunaren 360º ebaluazioa. Autoebaluazio pertsonalerako eta taldearekin eta entrenatzaileekin batera ebaluatzeko saio bat da. Titulazioaren trebetasun-profila, hiru kategoriatan: teampreneur, teamlearner eta teamleader, ebaluatzen laguntzen duten hainbat tresna erabiltzen dira. Saio honetan, ikaskuntza-prozesuan parte hartzen duten beste eragile batzuen iritzia jaso ahal izango da, hala nola bezeroena eta erabiltzaileena.
3. Portfolio pertsonala erregistro bat da, eta bertan jasotzen dira ekintzailearen ikaskuntza prozesuan eta emaitzetan, ebidentzia gisa balio duten beharrezko dokumentu eta datu guztiak.

Arautegi akademikoa

Ikasketa Plana eta Arautegi Akademikoa

Egutegi akademikoa

Ikasturtearen garapena:

2024ko abuztuaren 12tik 2025eko uztailaren 11ra (Laborategi eta kurtso bakoitzaren arabera).

Ikasturte hasiera:

Abuztuaren 12tik irailaren 23ra (Laborategi eta kurtso bakoitzaren arabera).

Gabonak:

Abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra.

Lehenengo seihilekoaren ebaluaketak:

Abenduaren 11tik urtarrilaren 31era.

Aste Santua:

Apirilaren 14tik 27ra (Learning Journey-an dauden taldeentzat, data hauek malguak izan daitezke, atzerriko herrialdeen egutegira hobeto egokitzeko).


Bigarren seihilekoaren ebaluaketak:

Ekainaren 2tik 27ra.

Ez ohizko ebalukaeta probak:

Uztailaren 1etik 11ra (Leinn International 3º: Ekainaren 9tik 20ra. Leinn Puebla Ekainaren 16tik 30era).

Estatuko, eskualdeko eta tokiko jaiegunak, laborategi bakoitzean zehazten dira, ikaskuntza-bidaiak eta taldeen egonaldiak ere kontuan hartuta.



LEINN Irakaskuntza gida

2024-2025

